EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza
*Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Administración y Servicios
*Dirección de Gestión de Personal*

# HEZKUNTZA BEREZIKO LAN LEGEPEKO PERTSONAL FINKOAREN 2026/27 LEKUALDATZE-LEHIAKETAK APLIKAZIO INFORMATIKOAREN GIDA

(2026, maiatza)

Lekualdatze-lehiaketan parte hartzeko eskaerak on line bakarrik egingo da., http://www.hezigunea.eus Irakaslegunea/Lekualdatze-Lehiaketa Internet-eko helbidean aplikazio informatiko baten bidez.

On-line betetako datuak eskaera formal eta baliagarria izan daitezen, eskaerari GORDE ematea ezinbestekoa dela gogorarazi behar duzu. Horrela ez bada egiten zure eskaera ez da formalizatuko.

Weba ziurtatuka dago Internet Explorer 8.0 eta Mozilla Firefox 24.0 nabigatzaileentzat. Aplikazioa 1024x768-ko bereizmen baterako optimizatuta dago.
Emaitzak behar bezala ikusi eta inprimatzeko, Acrobat Reader instalatuta eduki behar da.

Parte hartzeko eskaera on-line errazago betetzeko, ondorengo puntuak jasotzen dituen gida hau egin da:

1. Aplikaziora sartu........................................................................2.-4. orr.

2. Parte hartzeko eskabidearen alta............................................................ 5.-6. or.
   - Eskaera imprimatua ..................................................................7. or.
3. Iragarki-taula ............................................................................… 7. or.

Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 01 83 94 - Fax 945 01 83 35 / 36 - E-mail: huisgesp@euskadi.eus

# 1.APLIKAZIORA SARTU

Helbide honetan https://hezigunea.euskadi.eus/eu/ sartzerakoan pantaila hau agertzen da




- Erabiltzailea eta pasahitza sar itzazu




- Pasahitza gogoratu ezean, klik egin . 


eta hurrengo pantailaren argibideen arabera jokatuko da.




Klabeak (erabiltzailea eta pasahitza) sartu ondoren, pantaila hau agertuko da:



Administrazio-izapideak atalean aukeratu “Hezkuntza Bereziko Lekualdatze-Lehiaketa” ;

Ondoren, pantaila hau agertzen da:




Pantaila horretatik ondorengo ataletara sartu ahal da:

- Deialdiaren testua kontsultatu daiteke hurrengo estekak sakatuz:
- PARTE HARTZEKO ESKAERA bete ESKABIDEA sakatuz
- Iragarki-taula kontsultatu, informazio desberdinarekin. Berriak sakatuz.

## 2 PARTE HARTZEKO ESKABIDEA BETETZEA

ESKABIDEA sakatu behar da.

### HASIERA:




Aplikazioak zure lan-kategoria eta parte hartu ahal duzunarena aurkezten dizu.

Eskatzailearen izen-abizenen, NANaren eta parte hartzen duen lan-kategoriaren datuak kargatuko ditu aplikazioak. Hemendik aurrera, lekualdatze-lehiaketan parte hartzeko behar diren datuak bete beharko dituzu.

Formularioaren barruan tabuladorearekin, saguarekin edota korritze-barrarekin mugitu ahal zara. Datuak (Kategoria, Eremua, Lanpostua-Dotazioa) aukeratzeko goitibeherak dituzten atalak daudela hartu behar duzu kontuan. Lauki bat agertzen den ataletan klik eginez markatzen da eta berriro klik eginez desmarkatzen da.



## LANPOSTUEN AUKERA.

Datu pertsonalak bete ondoren, orri berberan lanpostuak aukeratu ahal dira. Horretarako pintxatu behar duzu hemen
**Botoiak: Kategoria, Eremua, Lanpostu-Dotazioa.**




Gorde botoia sakatu behar da eta lanpostu berri bat aukeratzen den aldi guztietan errepikatu behar da ekintza hau.
Hiru botoiak daude, lehenengo biak berrordenatzeko aukerak eta hirugarrena, paperontzia, ezabatzeko.
Parte-Hartzaile batek altan emanda dituen aukeren azpian justu eskariak kontsultatzeko opzioak agertzen dira.

Dauden eskaerak

| Ordena | Kategoria | Eremua | Lanpostua-Dotazioa | Deskribapena | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 00001 | Laneko terapeuta | B02 - BILBAO: TXURDINAGA | 3467 / 3 | Hizkuntza- eskakizunarekin, Hasierakoa | ▲ | ▼ | 🗑 |
| 00002 | Laneko terapeuta | B09 - DURANGO | 3467 / 5 | Hizkuntza- eskakizunarekin, Hasierakoa | ▲ | ▼ | 🗑 |
| 00003 | Laneko terapeuta | ARABAKO ORDEZKARITZA | 3467 / 1 | Hizkuntza- eskakizunarekin, Erresulta-fase | ▲ | ▼ | 🗑 |
| 00004 | Laneko terapeuta | G04 - ORDIZIA | 3467 / 7 | Hizkuntza- eskakizunarekin, Hasierakoa | ▲ | ▼ | 🗑 |

Lehenengo orrialdea Aurrekoa | 1 orrialdetik 1 | Hurrengoa Azken orrialdea 10 — 1 - 4(e)tik 4 erakusten

INPRIMATU

Botoi horrek betetako parte hartzeko eskaera inprimatzeko aukera ematen du.




Eskaera aldatzeko azken eguna 2026ko maiatzaren 18a, izango da, 23:59:59tan.

## 3 IRAGARKI TAULA

Lekualdatze-lehiaketaren hasierako pantailaren beheko aldean lehiaketari buruzko berri desberdinak agertzen dira. Berri horiek gaurkotzen dira, lehiaketaren prozesua aurrera doan heinean.